

Defentsa Juridiko Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Asistencia Legal BBVA Allianz

Produktuaren kontratu aurreko eta kontratuzko informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da.

Zertan datzate mota honetako aseguruak?

Aholku juridikoa eta fiskala ematen dizuen aseguruak da, lurralde nazionalen eman daitezkeen gertaerarako. Aseguratutako zenbatekoa zure kontratuko Baldintza Orokorretan ageri dena izango da.



Zer aseguratzen da?

- ✓ **Telefono bidezko aholkularitza juridikoa**
BBVA Allianz Seguros-ek egiten duzun kontsulta juridiko edo legezko orori erantzuna emango dio, zure alor pertsonalari eta Espainiako legislazioari buruzkoa.
- ✓ **Telefono bidezko zerga-aholkularitza**
BBVA Allianz Seguros-ek egiten duzun zerga-kontsulta orori erantzuna emango dio, zure alor pertsonalari eta Espainiako legislazioari buruzkoa.
- ✓ **Lege-laguntza 24 orduz**
BBVA Allianz Seguros-ek egunean 24 orduz, telefono bidez, lege-laguntza emango dizu presazko egoeretan (alkoholemia-kontroletan, istripuetan...).
- ✓ **Kontratuak egitea eta berrikustea**
BBVA Allianz Seguros-ek, zuk eskatuta, zu alderdia zaituzten kontratuak edota idazkiak idatzi edo berrikusiko ditu (erreklamazio-gutunak edota informazioa eskatzen dutenak, higiezin salerosketa-dokumentuak, autoei buruzkoak...).
- ✓ **Kontsumitzailearen defendatzailea**
Zerbitzu honek elkargoko kide diren abokatuen aldetik kontsumitzaile gisa dituzun eskubideen aurreko defentsa barne hartzen du.
- ✓ **Abokatu-bulegoen sarerako sarbidea**
BBVA Allianz Seguros-en abokatu-bulegoen sare nazionalako abokatu laguntzaileen bulego baten zerbitzua estaltzen dizu.
- ✓ **Trafiko-isunen gestioa**
BBVA Allianz Seguros-ek zure defentsako dokumentuak idatzi eta aurkeztuko ditu, zure aurka edo baimendutako gidariaren aurkako trafikoko, motordun ibilgailuen zirkulazioko eta bideko segurtasuneko prozedura administratibo zehatzaileen aurrean.
- ✓ **Administrazio-gestoriako aholkularitza**
BBVA Allianz Seguros-ek telefono bidezko aholkua emango dizu Administrazio Publikoetan egin behar duzun edozein gestio egiteko.
- ✓ **Administrazio-gestorien sarerako sarbidea**
BBVAko gestoria administratiboen sare nazionalako laguntzailea den gestoria administratibo baten zerbitzuak erabili ahal izango dituzu.
- ✓ **Aldizkari Ofizialetan eta Testra-n bilatzea.**
BBVAk Aldizkari Ofizialetan eta Testra-n bilatuko du, zure izenera argitaratutako inolako zigor-espedienterik balego ere, garaiz eta forman arreta eman ahal izan diezaiozun.
- ✓ **Lan-arloko defentsa**
BBVA Allianz Seguros-ek zure defentsa estaliko du, besteren konturako langile gisa, lanetik kanporatua izanez gero eta Gizarte Segurantzako erakundeek jaulkitako ebazpenak inpugnatzeko, zure ezgaitasun iraunkor partziala, osoa, absolutua edo ezintasun handia aitortzen ez badute.
- ✓ **Kalteen erreklamazioa motordun ibilgailuen zirkulaziotik eratorritako Istripuen kasuan**
BBVA Allianz Seguros-ek erreklamazioa bermatzen dizu, bai lagunarteko bidean, baita judizialean ere, oinezko edo motordun ibilgailu bateko gidari edo bidaiari gisa pairatutako gorputzeko kalteengatik eta ondare-kalteengatik dagozkizun kalte-ordainen erantzule diren hirugarrenen aurrean.
- ✓ **Defentsa penala**
Zure defentsa penala estalita egongo da, salatu, atxilotu edo inputatu gisa, edo salatzaile edo kaltetu gisa, Baldintza Orokorretan azaldutako kasuen arabera.
- ✓ **Banantze edota dibortzio-kasuetako defentsa**
Zure defentsa estalita dago banantze- edo dibortzio-prozeduretan, auzibidean edo elkarrekin adostuta, lehen instantziako tramitazioan zehar.
- ✓ **Ibilgailu automobilak tailerretan konpontzeagatiko erreklamazioak**
Zure defentsa juridikoa estalita dago, jurisdikzio zibilaren aurrean eta lehen instantziako tramitaziorako, ibilgailu automobilak konpontzen dituzten tailerren aurka, urtarrilak 10eko 1457/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako konponketengatik.

Defentsa Juridiko Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Asistencia Legal BBVA Allianz



Zer ez dago aseguraturuta?

Hona, laburbilduta, salbuespen nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

- ✗ Bazter geratzen dira, oro har, alde zuzenetik BBVA Allianz Seguros-i jakinarazten ez zaizkion gastuak, baita egoki den baimena jaso ez dutenak ere.
- ✗ Asegurudunari epai edo administrazioaren ebazpen bidez ezarritako betebeharrak betetzea.
- ✗ Isunen ordainketa eta agintari administratibo edo judizialek Asegurudunari ezarritako zigorrak eragindako gastuak, subjektu pasibo den zergak eta pilatu edo jazartzeagatik egoki diren gastuak, aseguruaren xedearen barruan ez dauden arloen ingurukoak badira.

- ✗ Gorabehera Asegurudunaren fede txarrez gertatu denean.
- ✗ Trafikoko segurtasunaren aurkako delituak, Zigor-prozedura judizialek bermean ezarritakoa salbu.
- ✗ Ez dira estalita geratuko ondorio judizialak edo administratiboak, puntuak galtzea adibidez, edo gidatzeko baimena kentzea, Zigor-prozedura judizialek bermean aipatzen diren delituetatik eratorriak.
- ✗ Kontratua indarrean sartu baino lehen izandako gertakariak.
- ✗ Asegurudunak kirol-probetan, lehiaketetan, joko edo demetan parte hartzen duenean, motordun ibilgailua erabilia.



Ba al dago Estaldurari dagokion murrizketarik?

Hona, laburbilduta, murrizketa nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

- ! Bermatutako gastu guztiak estaltzeko aseguraturutako gehieneko zenbatekoa 6.000 euroan ezarrita dago, aseguruaren urtaldi bakoitzeko, berme bakoitzean ezarritakoak salbu.
 - Kontsumitzailearen defentsa: 200 euro.
 - Trafikoko zigorraren gestioa: 300 euro.
- ! BBVA Allianz Seguros-ek ez du bermatzen egindako gestioen emaitza.
- ! Telefono bidezko Zerga-aholkularitza, 24 orduko lege-laguntza eta administrazio-gestorietako laguntza-zerbitzuak ahozkoak dira eta ez dute txostenak edo ebazpenak idaztea barne hartzen.
- ! BBVA Allianz Seguros-eko abokatu-bulego laguntzaileen sareko bulegoen zerbitzuaren diru-sariak zure kargura izango dira, aurrez aurreko lehen bisita izan ezik.
- ! Ez daukazu trafiko-zigorraren gestioa estalita, Espainiako lurraldetik kanpoko zigorrak, ezta administrazioarekiko auzibidea edota zigor-prozedurei atxikitako omisioak ere.

- ! Lan Arloko Defentsan, ez daukazu estalita enpresa enplegu-emalea ez den gainerako enpresen aurkako defentsa, ezta FOGASaren aurkakoa ere. Ebazpenen burutzapena ere ez da sartzen, sendoak ez direnean.
- ! Salatu, atxilotu edo inputatzen bazaituzte, ez duzu Zigor Defentsa estalita, gertakari horiek eragindako segidako faltengatik.
 - Lapurreta, ebasketa, irainak, kalumniak, mehatxuak, zigortzeko moduko kaudimen gabezia, salaketa faltuak edo delituen simulazioa.
 - Ondasun higigarrietan egindako margoketak, jabetzaren lapurretak edo ebasketak, zurekin bizi diren 18 urtez beherako oinordeko senideek egiten dituztenak.
- ! Banandu edo dibortziazteko kasuetarako defentsa-estaldurak 6 hilabeteko gabealdia du eta abokatuaren diru-sariaren %40 zure kargura joango da. Bazter geratzen da irabazpidezko sozietatearen likidazioa eta neurriak aldatzeko prozedurak.
- ! Tailerretan ibilgailu automobilak konpontzeko erreklamazioen estalduraren auziaren gutxieneko zenbatekoa 200 eurokoa da.
- ! Aseguru-kontratutik eratorritzen diren ekintzak bi urteko epean amaituko dira, bere tramitearen hasierako datatik hasita.



Non nago estalita?

- ✓ Espainian

Defentsa Juridiko Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Spainian duena
(klabea DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Asistencia Legal BBVA Allianz

Zeintzuk dira nire betebeharrak?



- Asegurua ordaintzea
- Aseguru-kontratuan ageri diren kalteak zuzenak direla egiaztatzea eta BBVA Allianz Seguros-i datuen eguneratzea idatziz jakinaraztea, horietan aldaketarik gertatuz gero.
- Gorabeherarik gertatuz gero, BBVA Allianz Seguros-i jakinarazi behar zaio, 7 eguneko gehieneko epean. Epaketa azkarra bada, edo berehalako izaera duen bestelako ekintza judizial edo administratiboren kasuan, BBVA Allianz Seguros-i epaketa egin baino lehen jakinarazi beharko diozu.
- Ahal bezain laster BBVAri jasotzen dituzun jakinarazpenak helaraztea eta beranduenez egoki den idazkia aurkezteko mugaeguna baino bost egun lehenago gutxienez, jakinarazpena jaso den eguna eta modua adieraziz.

Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?



Ordainagiriaren kargua aseguruaren hasierako datatik aurrera egingo da, bankuko helbideratze bidez, aukeratzeko moduan, urtero, sei hilean behin edo hileroko.

Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?



Kontratuak urte beteko iraupena du, Baldintza Berezetan adierazitako hasierako datatik indarrean sartuko da, amaierako datara arte. Ondoren urtero berritzen joango da, automatikoki.

Nola amai dezaket kontratua?



Idatziz eskatu behar duzu, zure NANaren edo zure nortasuna egiaztatzen duen dokumentu baliokidearen fotokopia erantsita, Baldintza Orokorretan ageri den BBVA Allianz Seguros-en helbidera, Ramírez de Arellano kalea, 35 28043 Madrid - edo BBVA Taldeko edozein bulegotan, edo posta elektronikoki bidez seguros@bbvaallianz.es, kontratuaren amaierako edo urteroko berritze-data baino hilabete lehenago.